



MUSIKA

Xoratuko zara

XALBA RAMIREZ

Bai, erraten den bezala, lehengo lepotikan burua". Olaiaren ama, amona, izeba, bizilagunak ematen dio izena diskoari. Sustraietatik datorkio arima lan honi. Gutxi gorabehera jakina zen, jarraitzen zutenentzat behintzat, Olaia Inziarte egiten ari zena berezia izango zela. Duela urtebete ateratu zuen disko honetan gordezten den *Martziangoak*, eta ordutik ari da buru-belarri, bihotz eta eztarri, lan hau garatzen.

Ahotsaren potentzia eder erabilia da, indar uneak indartsuak direlako oso. Lu-xatu ere egiten du ahotsa, tarteka Eneritz Furyaken estiloan, giltza martzialaren pare aldatuz esperotako norabidea. Txistukatzen du fandango bat Pettirekin, rantxera bat dirudien zerbait han, eta bals bat, Joseba Tapia eta berarekin batera abesten duen ahots *ensemble* goxagarri eta trebarekin (Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe, alegia).

Oso popa diren uneetan kolorea asmatzen du Inziartek. Esan nahi dut, hizkuntza gisa mugatua dela popa, eta are, pop-rocka eta, hala ere, Olaiak badakiela handik eta hemendik topatzen zaporeak. *Zure mina* abestian saiatzen da beste pa-

leta bat gehitzen haizearekin, bateriak aurreratzen, garapena garatzen.

Martziango bat da Inziarte. Zentzu gutzietan uste dut. Barrura begiratzen ulertzen du kanpoko; eta lasai, barkamenik beroenak ematen ditu ulertzen ez duenarentzat. Baina badu belaunaldia- ren berezko zerbait, eta bada aipatzen ari garen nahaste hori. *Behe Klasekoa*, *Xagua eta Katua Vol II* eta *Berak Badaki* abestietako ekoizpenaren interesgarri- na hibridazioa baita. Hibridazio akaso neurtua, baina hibridazioa. Billie Eilish ahaztu xamarra dagoen arren, ildo hori du Inziartek: kantaren zerbitzura jartzen eskura dituen iturri guztiak. Iturri hori- rik pop komertzialetik kantu herrikoira doaz, eta dance elektronikotik eta uste dut jazzetik pasatzen ari direla. Eta sus- moa dut pasako direla gero eta gehiago. Ez dezagun ahaztu Olaiaren lehen diskoa dela hau. Helduegia lehena izateko, eto- rriko denarekin ilusioa pizteko modukoa.

Galtzerdi zulatuek istorio hobeak dituzte baino entzule onez eskas gaude. Ildo horretan bota zuen Ben Yartek arazoa ez dela eszena, baizik eta, artistek ez zute- la eskaintzen garaiak behar zuena. Eta



LEHENGO LEPOTIKAN BURUA

OLAIA INZIARTE

AUTOEKOIZPENA, 2022

behar denaren lehen urratsa, zalantza- rik ez, zintzotasuna da. Inziarteren kanta guztiak dira sinesgarriak, eta hori da kan- ta bati eska dakiokkeen behinena. Beste guztia bidean da.

Gainontzekoen minarekin kontuz ibili, baina baita ere ibili kantuz. Olaia bada sendagai moduko bat, bada gereziak aho- ra eramatearen parekoa. Lasaigarri bat: oraina etorkizuna dela ziurtatzen duena. Belaunaldi honek, bere minez jabetuz, badakielako zer nahi duen. Olaiak baze- kien, bai, xoratuko gara. ●

HIRITIK AT

Lurraldegintzarako
koordinatu
berriak



BDSkoop, IRUN | Wikitoki, BILBO
622609129 | hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus



HIRIGINTZA
—
TOKIKO GARAPENA
—
AHOLKULARITZA
ESTRATEGIKOA